

Gure parte-hartzaileekin harreman hurbila eta estua ezarri nahi dugu. Garrantzitsua izango da gazteen beharrak eta proposamenak entzutea zerbitzu malgua eta eraginkorra eraikitzeko. Horretarako, harreman pertsonala eta online zerbitzuak eskuragarri izango ditugu:

- **Bazkide txartela:** Diru sarreretan aipatu dugun bezala, bazkide txartel bat sortuko dugu. Batetik, onura eksklusiboak emango ditu, hala nola, bazkideak aste osoan arratsaldeetan gunera etortzeko eta ekintza berezietan parte hartzeko aukera izango dute. Bestetik, kide izatearen zentzua ere sortuko dugu. Horretarako, parte-hartzaileen beharrak, interesak eta proposamenak gure planifikazioaren oinarria izango dira. Beraz, bakoitzaren interesek zerbitzuaren eraginkortasunean eragin zuzena izango dute. Horrek, komunitate batuago bat izatea sustako du, eta gure bezeroei baloratuak eta aitortuagoak sentitzeko aukera emango die.
- **Bazkide bilerak edo asanbladak:** Bilerak antolatuko ditugu bazkideen ideiak, esperientziak eta iradokizunak jasotzeko. Bilera horiek bikainak izango dira harremana sendotzeko eta guztion beharrak eta nahiak asetuta daudela ziurtatzeko.
- **Whatsapp taldea:** Kanaletan aipatu den bezala, whatsapp taldea erabiliko da plangintza, ekintza desberdinak eta bestelakoak partekatzeko. Gainera, koordinatzaileekin zuzenean hitz egiteko aukera izango dute. Bat-bateko aldaketarik gertatuko balitz, bertatik berri emango litzateke.

Horrez gain, gure enpresak komunitatean presentzia izateko eta bezero berriak erakartzeko, beste harreman batzuk ezartzea komenigarria izango litzateke. Gure lokaletik kanpo ekintza ezberdinak antolatzea oso garrantzitsua izango delakoan gaude. Honek hainbat onura izango ditu. Hala nola, herri mugimendu ezberdinetan parte hartzea ahalbidetuko da, Lauargi ezagutzen ez dutenek honen berri izateko aukera izango dute, eta herri mailan osasun mentala normalizatzea gustatuko litzazuke. Hori lortzeko, gure gunetik kanpo ekintza desberdinak egingo ditugu:

- Bingo musikatu masifikatua
- Elkarre ezberdinetako ekintzetan parte hartu (Avifes, Argia, APS...)
- Emozioak ezagutu eta kanporatzeko tailerrak
- Kontzertu, ekitaldi, emanaldi desberdina